



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-10-26

VIII. URTEA 2.109. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Mikel Zalbide, Lurdes Auzmendi, Jokin Bildarratz, Maria Jesus Aranburu, Josune Zabala eta Iñaki Azaldegik aurkeztu zuten akordioa. I. TERRADILLOS

GAZTEEK EUSKARAZ HITZ EGIN DEZATEN

TOLOSA Udalak eta Mintzola Fundazioak ahozko euskara eta gazteak uztartuko dituen 4 urteko ikerketa egingo dute 2



Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzakoak elizan egindako emanaldiaren une batean. EDUARDO ARRAYET

KANTUAK LOTU DITU KORUAREN 50 URTEAK

ALEGIA Herriko abesbatzak Txintxarri Egun «hunkigarria» ospatu zuen bere mende erdiaren errepasoa eginez abestien eta argazkien bidez 4

42 etxebizitza tasatu iragarri ditu Udalak

ZIZURKIL Izena emateko azken eguna azaroaren 30a izango da eta lanak 2011n hasiko dira 3

lorekolore
LUR ZERBITZUAK

LORATEGIA ETA BARATZERAKO BEHAR DUZUN **GUZTIA**

SANTU GUZTIEN EGUMERAKO ZENTROAK ENKARGUZ
(Landaerak 2011ko lehen martxoan, Astele gabate)

MEGU GARAIKO LORAK SALGAJ

Aitune poligonoa, 4-G. OLABERRIA | 943 88 30 53

Gazteen ahozkotasuna ikertu eta sustatzeko ekimena abiarazi dute

Euskara » Mintzolak eta Tolosako Udalak egingo dute elkarlanean, Jaurilaritza eta Foru Aldundiaren babesarekin; Tolosako DBHko ikasleek hartuko dute parte.



Mikel Zalbide, Lurdes Auzmendi, Jokin Bildarratz, Maria Jesus Aranburu eta Josune Zabala, atzo akordioa sinatzen. i.t.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Udalak eta Mintzola Fundazioak elkarlanean ahozko euskara eta gazteak uztartuko dituen lau urteko ikerlana abiatu dute. Ahozkotasuna sustatu eta iturri oneko hitzunik ugaritzea du helburu proiektuak, eta Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurilaritzaren babesa jaso du.

Egitasmoari ekiteko atzo sinatu zuten akordioa parte hartzen duten lau erakundeetako ordezkariak, Mikel Zalbide Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailako Euskara arduradunak, Lurdes Auzmendi Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara foru diputatuak eta Josune Zabala Mintzola Fundazioko zuzendariak, hain zuzen ere.

2000. urtetik hutsunea

Jokin Bildarratzek azaldu zuen bezala, 1985 urteaz geroztik ari da Tolosako Udala urtero euskararen presentziaren neurketa egiten. «2000. urtera bitarte eman den garrapena oso garrantzitsua izan da, izan ere, duela 20 urte A eta D eredu-maila beretsuan zeuden, baina 2000. urtean ikasle gehienak D ereduari ziren, eta gaur egun,

%99 ari dira euskarazko ereduari». Bada, 80 hamarkadatik 2000. urtera bitarte, haur eta gazteen euskararen erabilera asko handitu dela (%37tik %71ra haurrengana eta gazteen kasuan, %16tik %60ra), baina, urte horretatik aurrera ez duela ez aurrera ez atzera egin azaldu zuen Bildarratzek. Hori izan da, hain zuzen ere, egitasmo honi ekiteko arrazoia. «Hausnarketa egiten ari ginen egoera horri irtenbidea aurkitzeko, eta Mintzolarekin jarri ginen harremanetan, elkarlanean egitasmoa adostuz».

Lau urte eta hiru fase

Josune Zabala Mintzola Fundazioko zuzendariak bi helburu nagusi dituela proiektuak azaldu zuen: «Batetik, gazteek euskaraz gehiago eta egokiago mintzatzeko ikerketa egitasmoa da; bestetik, euskara izanik ikaskuntza eta irakaskuntza objektua, irakaskuntza bera aztertuko dugu, eta ahozko hizkuntza gazteekin lantzeko praktika onak zein diren identifikatuko ditugu». Halaber, egitasmoa Tolosan gauzatuko den arren, eta helburua Tolosako behar ba-

ren amaieran ekingo diote lehen diagnostikoa egiteari. «Gazteen euskararen eta ahozkotasunaren jarrerak aztertuko ditugu, hau da, gela barruan nahiz gelatik kanpo zenbat erabiltzen duten euskara, eta zein gaitasun dituzten ahoz komunikatzeko garaian». Bi edo hiru hilabete iraungo du lehen fase honek.

Lau urteko laborategiak

Zabalak azaldu zuen bezala, Tolosako hiru ikastetxeak, hau da, Hirukide Eskolapioak, Laskorain ikastola eta Orixe institutua laborategi bihurtuko dira egitasmoa gauzatzeko. «DBHn egingo dugu lana, eta maila horretako gela guztietako gazteekin ariko gara». Euren ariko dira, beraz, Mintzola Fundazioko langileak, baina, horrez gain, jarraipen batzorde bat ere osatuko dute, unibertsitateko adituekin, herri agintarien ordezkariekin eta gaiaren inguruan aholkularitza emango dieten adituekin.

Egitasmoaren gauzatzea

Eusko Jaurilaritzaren, Foru Aldundiaren, Tolosako Udalaren eta Mintzola Fundazioren arteko akordioa atzo sinatu zuten arren, egitasmoak eman ditu dagoeneko lehen pausoak: «Irakasleekin harremanetan ari gara, eta eskertu beharra dugu proiektuaren aurrean erakutsi duten jarrera bikaina, egitasmoa eraginkorra izango dela benetan sinetsi baitute», azaldu zuen Mintzola Fundazioko zuzendariak.

Irakasleekin izan duten lehen hartu-emanaren ostean, azaroa-

ren amaieran ekingo diote lehen diagnostikoa egiteari. «Gazteen euskararen eta ahozkotasunaren jarrerak aztertuko ditugu, hau da, gela barruan nahiz gelatik kanpo zenbat erabiltzen duten euskara, eta zein gaitasun dituzten ahoz komunikatzeko garaian». Bi edo hiru hilabete iraungo du lehen fase honek.

Tolosako hiru ikastetxeetako DBHko ikasle guztiak hartuko dute parte, lau urtetan

Bigarrena esku-hartzeari zuzendutako fasea izango da, eta tailer ezberdinak egingo dituzte aurretik jasotako datuak garatzeko. «Jarduera ezberdinak egingo ditugu gazteekin, eta asmoa aurreko diagnostikoa lantzeko eta sustatzeko erabili beharreko tresna egokienekin bat egitea izango da».

Hirugarren fasean diagnostikoren txanda etorriko da berriro. Hau ikasturtearen amaieran aplikatuko dute, eta hasierako diagnostikoarekin eraldaketarik ba al dagoen ikustea eta aztertzea izango da helburua. Hiru fase horiek lau ikasturteetan zehar errepikatuko dituzte, eta urte bakoitzaren amaieran esku artean dituzten datuen eta bilakaeraren berri eman goko dute.

» DATUAK

- **Zer.** Gazteen euskararen ahozko erabilera sustatu eta maila handitzea eta hori lortzeko tresnak topatzea helburu duen egitasmoa.
- **Nork.** Mintzola Fundazioak garatuko du Tolosako Udalarekin elkarlanean, Tolosako hiru ikastetxeetako DBHko ikasleekin.
- **Aurrekontua.** 121.860 euro.
- **Diru-laguntza.** Eusko Jaurilaritzaren Kultura Sailak %25a; Eusko Jaurilaritzaren Hezkuntza Sailak %25a; Foru Aldundiak %33a; eta Tolosako Udalak %17a.

Egitasmoaren faseak

- **Lehen fasea.** Erabileraz eta honen kalitateaz diagnostikoa.
- **Bigarren fasea.** Diagnostikoa sustatu eta dauden hutsuneak betetzeko tresnak topatzea.
- **Hirugarren fasea.** Bigarren diagnostikoa egin eta konparatu. Lau urtetan errepikatuko da prozesua.

Ahozkotasunean hutsunea

Iñaki Azaldegik Tolosako Udaleko Euskara sailako buruak «ahozkotasunean somatzen ari zen hutsunea» betetzera datorrela egitasmoa azaldu zuen, Andu Lertxundik *Berria* egunkarian idatzi berri duen artikulu adibide bezala aipatuz. Hain zuzen ere, idatzizkoa izan dela euskararen lehentasuna azken urteetan eta ahozkotasuna albo batera utzi dela aipatzen zen artikulu horretan. Halaber, irakasle eta ikasleek erakutsi duten «ilusioa eta gogoia» egitasmoa ondo aterako dela pentsatzeko nahikoa oinarri badirela esan zuen.

Mikel Zalbidek, berriz, euskaraz hitz egiten etxean eta familian ikasi izan dela esan zuen. «Gaur egun, ordea, galduz joan da familian ikastearena, eta horrek euskararen ahozkotasunean, gainerako hizkuntza gehienetan bezala, eragina izan du. Eskola baliatu behar genuke, beraz une honetan, baina jakin egin behar da nola erabili, desberdina baita euskaraz zertxobait dakienari edota ezer ez dakienari irakastea».

Euskara egokia, kezka nagusi

Bestalde, Lurdes Auzmendik hezkuntzaren alorrean euskara zuzenaren kezka izan dela nagusi azken urteetan nabarmendu zuen. «Aurrerapauso ugari eman dira, baina zuzena izateaz gain, euskarak egokia ere izan behar duela da orain kezka, hau da, komunikazio egoera bakoitzera egokitzeko gai behar duela izan». Auzmendiren arabera, horretarako funtsezkoa da ahozkotasuna lantzea, «horrela bakarrik lortuko baita hizkuntza freskoa eta bizia izatea».

Maria Jesus Aranburuk, bere aldetik, Mintzola sortzeko egitasmoa lantzen hasi zirenetik ahozkotasunaren garrantziaz jabetuta zeudela adierazi zuen. «Egitasmo honekin, gazteek esaten dutena entzun, metodologia bat aplikatuz ondorio batzuk atera, eta gero gazteen beharrak erantzuteko gai izan behar dugu», esan zuen.





Plazaren inguruan eraikiko dituzte tasatutako 42 udal etxebizitzak. IMANOL GARCIA

Tasatutako 42 udal etxebizitza eraikiko dituzte

Zizurkil » Interesa dutenek izena emateko aukera dute Udal bulegoetan. Lanak 2011ko martxoan hasiko dira.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak herriko plazan tasatutako udal etxebizitza bat eskuratzeko herritarrek duten interesari buruzko galdeketa egitea aurreikusi du. Horretarako, aste honetan zehar, sustapen honen baldintzak eta etxebizitzaren ezaugarriak adierazten dituen liburuxka bat sartuko du herriko postontzietan. Liburuxkak, etxebizitzaren zozketan parte hartzeko interesa duten herritarrei zuzendutako atal bat izango du. Eta Udalarik helarazteko aukera ematen du.

Argitalpen hau, zizurkildarren etxeetan bakarrik ez da izango, inguruko herrietako bizilagunen postontzietan ere sartuko da. Gertutasunagatik, Zizurkilaren tasatutako udal etxebizitzaren batean bizitzeko interesa ager dezaketeko

hauek ere. Honenbestez, interesatuek izena emateko datuak bete eta udal txekean aurkez ditzakete. Izena emateko azken eguna azaroaren 30a izango da. Eskabideen aurkezpena Udalaren Teodoro Hernandorena edo Aurrera Plazako instalazioetan entregatuz egin daiteke, edota posta bat zizurkil@udal.gipuzkoa.net helbide elektronikora igorritik.

Udalak dio, «hasierako izen emate honek eskatzaileen eskubiak eskuratzeko adierazten ez badu ere, eskabidea aurkezten duten guztiak jasoko dute eskabide formalak entregatzeko epeari buruzko informazio zehatza, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera».

2011ko martxoan hasteko

Herriko plazan orotara tasatutako 42 udal etxebizitza bultzatzen ditu sustapen honek. Etxebizitzak, atxikitako beren trastetegiarekin izango dira eta 50 garaje eraikitzea aurreikusten da. Etxebizitzek egongela, sukalde, komuna eta bi edo hiru logela izango dituzte.

Hauek, 65 edo 80 metro karratu inguruko azaleran banatuko dira. Etxebizitza egiteko lanak 2011. urteko martxoan hasia aurreikusuten dute, eta 18 hilabete inguru beharko dituzte etxebizitzak entregatzeko.

Hauexek dira sustapen honetako zozketan sartu ahalizateko bete beharreko baldintza nagusiak: 12.000 euro baino gehiagoko eta 45.500 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak izatea. Zozketa egin aurreko bi urteetan, ezingo da etxebizitzaren jabe izan. Interesatuek 943 691 012 eta 620 104 751 telefonoetan ere eska dezakete honi buruzko informazioa.

Jarduketa honekin Zizurkilgo Udalak babestutako etxebizitzak epe laburrera nahi dituen hiritar-goiari erantzun nahi die. Eta gainera, herriko gune nagusian kokatuak izango dira.

Asmo honekin batera, Udalak herriko plaza berregituratzeko behar diren aldaketak aztertu nahi ditu, kalitatezko gune bat herriko bizilagunen gozamenarako eratu.

@ Twitter eta Facebook. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria Facebook-ean eta Twitter-ean aurkitzen da. Egin zaituzte gure lagun edo jarraitzaile. Gizarte sare hauetan sartu eta aurkitu TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Modu horretara, azken orduko edo zure herriko albisteak zuzenean jasoko dituzte. Horrez gain, sarean informaturik egoteko ohiko bideak eskaintzen dizkizu eskualdeko euskal kazetak. Parte hartzeko aukera ere bertan aurkituko duzu:

www.tolosaldekohitza.info

Laburrak

Mus eta tute txapelketak Behar Zana Kirol Elkarteak

VILLABONA • Urtero bezala, Villabonako Behar Zana Kirol Elkarteak mus eta tute txapelketa antolatuko du azaroan. Txapelketa honetan parte hartzeko bikotekide batek behintzat elkarteak bazkide izan beharko du. Musean edo tutean apuntatzeko azken eguna urriaren 29a, ostirala, izango da. Dagoeneko sarreran dagoen taulan zerrendak jarrita daude. Txapelketa azaroaren lehenengo hamabostaldian hasiko da. Beste aldetik, Behar Zana Elkarteak urterotzatzen dituen Gabonetako zozketako txartelak salgai daude Villabonako ohiko lekuetan.

Herriko kirolariak omentzeko proposamenak

ZIZURKIL • Zizurkilgo Udalak, zizurkildar kirolari txapelketei errekonozimendu xume bat egingo die. Abenduan antolatzen den Kirol astearren baitan izango da. Errekonozimendu hori jasotzeko baldintzak hauek dira: Zizurkildarra izatea, Zizurkilaren bitzitza edo Zizurkilekin harreman berezia izatea, 16 urte edo gehiago izatea eta Gipuzkoako txapelketa edo probaren batean emaitza onak eskuratu izana. Proposamenak edozein herritarrek bidali ditzake Udala bulegoetara. Telefonoz 943 692 495 deituta edota kultura@zizurkil.com helbidera idatzita.



Usabiaga, Garlartza eta Cozar aktoreak izango dira ostiralean. F. DE LA HERA

Kultur Jardunaldietan adin guztietarako moduko ekintzak

Asteasu » Gaur pailazoak eta bihar proiektzioa izango dira. Ostiralean udaletxeke zine aretoan *Ate Joka* antzerkia izango da.

ERREDAKZIOA

Asteasun urtero bezala, urte sasoi honetan Kultur Jardunaldiak dituzte. Aste hau ekitaldiz betea dute. Berotzen hasteko, ostiralean, kantu afaria izan zuten.

Gaur, herriko haurren txanda izango da. 17:30ean udaletxeke zine aretoan, *Kuko, Truko eta Bolenwaider* pailazoak izango dira. Eskainiko duten emanaldia, *Taulara!* izango da.

Bihar 19:30ean udaletxeke zine aretoan, Mikel Laboa (1934 - 2008) dokumentala eskainiko dute. Ostegun libre utziz, ostiralean euskal antzerkiari gozatzeko aukera izango dute asteaurrek. 21:30ean hasiko da umorerik falta

ez zaion komedia. Udaletxeke zine aretoan izango da *Ate Joka* izena duen antzerkia. Aktore ezagunak izango dira, Iker Galartza eta Joseba Usabiaga eskualdekoak eta Sara Cozarrek.

Argazki lehiaketa martxan

Argazki lehiaketa martxan dago. Azaroaren 2a bitarte Asteasuri buruzko irudiak aurkezteko aukera zabalik dago. Kultur-Etxean aurkeztu beharko dira. Bertako natura, historia, artea, biztanleak, eta abar... aurkez daitezke. Gaia librea da eta edozein argazki onartuko da. Euskarri digitalean edo 30x40 zentimetroko kartulinan aurkeztu beharko dira. Partaide bakoitzaren lau argazki onartuko dira gehienez.

Argazki lehiaketan parte hartzen dutenen artean sariak banatuko dituzte. Lehenengoak 150 euroko saria jasoko du. Bigarrenak, 120 eurokoa eta hirugarrenak 100 eurokoa.

Lizartza Udal etxebizitza tasatuak

Ezartako muga baino txikiagoa den prezioan eskaintzen ditugu, udalak eta lizartzaileak Yalasa Lizartza.

Apuntatu zailte azaroaren 11 baino lehen

Argiteles: Lizartza

Lizartza Udala
943 678 710
www.lizartza.com

11111: 636 666 147
www.turia.net



Egungo abesbatzako kideak eta aurretik aritu diren hainbat kide hiru kantu abesteko elkartu ziren. EDUARDO ARRAYET

Kantuak iragana eta oraina elkartu ditu

Alegia » Txintxarri Egungo «hunkigarria» ospatu zuen herriko abesbatzak, bere 50 urteen errepasoa eginez abestien eta argazkien bidez.

ERREDAKZIOA

Alegiako Txintxarri abesbatzak «itxaropen guztiak» bete zituen igandean. Urtero egiten duen Txintxarri Eguna borobila izan zen. Emanaldia jendetsua izateaz gain, «betea eta hunkigarria» izan zen. 50 urteetako ibilbideari errepaso egin zioten kantuen eta argazkien bidez. Iragana eta oraina elkartu zituzten kontzertu berean.

Mende erdi honetan Txintxarri abesbatzari arnasa eman dioten guztiak elkartu nahi izan zituen herenegun Abesbatzak, «50 urte betetzea guztien konpromisoaren eta lanaren ondorio izan baita». Alegiako eliza jendez lepo beteta zegoen kontzertua haserako. Askok zutik jarraitu behar izan zuten emanaldia.

Kantuak elkartu zituen alegiarrak, «abestea maite dugulako, abesteko beharra dugulako jarraitzen dugu Txintxarri abesbatzari

arnasa ematen, taupadak taupada geroan segi dezan», esan zuten abesbatzakoek. Pausoz pauso egin zuten emanaldia, Felix Irazustabarrenaren kantuak ongi dion bezala. Kantuak barrenak astintzen omen ditu. Kantuak oroitzapen-tarabidaizteko ere balio du. Hori gertatu zen: abestiek eta oroitzapenek ederki astindu zituzten askoren barrenak, negar malko asko egon baitzen.

Bi zatitan banatu zuten kontzertua, koruak izan dituen bi zuzendarien garaian arabera: 1960tik 1990era bata, Joxe Gastesi zena zuzendari izan zenekoa, eta 1990etik 2010era bestea, Garbiñe Orbeongo egungo zuzendariaren garaia. Garai batean zein bestean ikasitako kantuak abestu zituzten. Hiru argazki sorta erakutsi zituzten aldarean jarritako pantaila erraldoi baten bidez, eta horiek ere garaian arabera erakutsi zituzten.

Kantu zaparrada

Txintxarri abesbatzaren harrobiak, Txintxarri Txiki abesbatzak eman zion hasiera emanaldiari, Idoia Iraolaren zuzendaritzapean. Aitor Iraola herritarrak lagundu zien pianoarekin. Segidan, Txintxarri abesbatzaren txanda izan zen. Sei kantu eskaini zituzten Garbiñe Orbeogoren zuzendaritzapean, horietako batzuk Mariaje

Rekondo herritarrak pianoarekin lagunduta.

Kontzertuko kantu bereziana, zalantzarik gabe, egun horretan estreinatutako *Pausoz pauso* abestia izan zen. Xabier Sarasola beasaindarrak egindakoa da doinuak, eta hitzak, berriz, Felix Irazustabarrena herritarrak. Bi egileak bertan zirela kantatu zuten eta txalo zaparrada handiak jaso zituen koruak. Kantuaren amaieran *Txintxarri abesbatza, 50 urte* irakurtzen zen txartelak altxatu zituzten abeslariak.

Azken hiru kantuak kantatzeko Txintxarri abesbatzaren kantari ibili diren abeslari ohiak deitu zituzten. 50 bat lagun gehiago batu zitzaizkien abesbatzakoek, eta ia 90 ahots batera aritu ziren. Abesbatzakoek sekulako irrika sortzen zien zer baitzen, abeslari ohiak biltzea.

Koruaren historian gehien kantatu diren abestiak aukeratu zituzten: Alexander Lesbordesen *Kantuz* eta Joxe Mari Gonzalez Bastidaren *Saratarra*. Luis Urteagaren *Agur jaunak* kantatuz amaitu zuten. Kantu horiek egiten dute koruko abeslari guztien zubi-lana.

Oroigarriak

Azken kantuak kantatu aurretik, oroigarrien tartea izan zen. 50 urteotako ibilbidean pertsona eta erakunde asko zituzten goraipa-

tzeko. Lehendabizi Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren oroigarria jaso zuen abesbatzak Amaia Garmendia presidentearen eskuetik; Ibon Azpilikueta Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteko lehendakariak jaso zuen. Segidan, Sarasola eta Irazustabarrena kantuaren egileek lore sorta jaso zuten.

Txintxarri abesbatzari horrenbeste urtetan, «diruz nahiz gizabultzadaz, horrelako babes handia eman dion» herriko Udala ere gogoan izan zuten; Aitor Sarasola alkateak jaso zuen oroigarria, eta Udalak berak ere oroigarria eman zion Abesbatzari, 50 urteengatik zorionak emanez. Joxi Eguzkitza herriko apaizak ere jaso zuen oroigarria, «eskerronez, elizako atek beti zabalik izan dituelako entseguak egiteko eta emanaldiak eskaintzeko».

Hiru herritar gogoan izan zituzten ondoren, koruarekiko erakutsi duten konpromiso handiagatik: Antonio Zubillaga, Nerea Elola eta Jon Aranburu. Eta azken urteotan zuzendari den Idoia Iraola tolosarra bereziki nabarmendu zuten. Horrenbeste emanalditan pianoarekin laguntzen dien Mariaje Rekondo piano-joleak ere jaso zuen lore sorta.

Bukaeran goraiatu zituzten bi zuzendariak, Joxe Gastesi zena eta Garbiñe Orbeogo. Gastesi zenaren emaztea, Maritxu Iriarte, eta seme-alabak emanaldian izan ziren, hunkituta oso. Entzuleak zutik jarri eta txalo zaparrada handiak eskaini zizkieten emazteari eta seme-alabei. Arantxa Gastesi alabak, Txintxarri abesbatzako kantari izandakoa bera ere, jaso zuen oroigarria. Orbeogo izan zen lore sorta eta Jon Aizpurua abeslariak eginko oroigarria jasotzen azkena; oso hunkituta jaso zuen, Abesbatza zuzentzen aurretik 20 urte bete dituen alegiarrak.

Orbeogozok Txintxarri Eguna-
ren ondoren azaldu duenez, «eki-

taldi oso polita izan zen, bere mento hunkigarriekin. Nire aldetik, gertutasuna eta babesba jaso nuen. Badakizu hori hor duzula, baina horrela erakusten dizutenen, oraindik barrurago iristen zaitzu».

Julen Goikoetxea eta Txintxarriko abeslaria den Nerea Pikabea kazetariak aurkeztu zuten emanaldia. Txintxarri Abesbatza Kultur Elkartek «inoiz baino gehiago» eskertu nahi ditu koruari laguntza ematen dioten erakunde eta herritar guztiak.

140 lagun bazkaltzen

Emanaldiaren ondoren ere festa giroan segitu zuten. Herriko kultur etxean egin zuten bazkaria. 140 lagun bildu ziren bazkaltzeko. Ondoren, ikuskizuna prestatuta zeukaten abesbatzakoek bazkaltzarrentzako. Antzerkia eginez omendu nahi izan zituzten abesbatzaren urterik gehien daramatzaten abeslariak: Xefe Balerdi, Juan-txo Aranburu, Joxe Mari Balerdi, Mila Begiristain, Migel Mari Ara-baolaza eta Xabier Mingo. Garbiñe Orbeogo koruko zuzendaria ere goraiatu zuten; guztiek eskerrak eman zizkieten koruaren alde egindako lanagatik eta belanaldi berriekin zubi-lana egiteagatik. Momentu hunkigarriak bizi izan ziren hor ere.

Duela gutxi hil den Joxe Gastesiren aipamenak ugari izan ziren emanaldi osoan, baita ondoren kultur etxean egin zuten bazkarian ere. Maritxu Iriarte haren alarguna eta seme-alabak bertan izan ziren.

Erakusketa larunbata bitarte

Koruaren 50 urte hauei errepasoa egingo diete abesbatzakoek erakusketaren bitartez. Herriko kultur etxean jarrita dago larunbata bitarte koruaren historia kontatzen duen erakusketa. Orduetgia 18:30etik 20:00ak arte da, eta larunbatean 11:00etatik 12:30ak arte.

DENAK
taberna

URTEARRA

943 67 16 27 • Igaralde 4, baxua
20400 Tolosa

Astelehenetik ostegunera ogitartekoetan
2 pertsonentzako 2x1 eko eskaintza

- Eskaintzaz gozatu nahi duenak, **aurretik tabernara deitu** dezala joango dela esateko
- Kupoiaz gain, **harpidedun txartela** ere eraman beharko da
- Eskaintzaren iraingitze data, **2010eko abenduaren 31**

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**

DENAK
taberna

2x1 eskaintza

Izen - Abizenak:.....

Harpidedun kodea:.....

Erreserba eguna:.....

Jende eta produktu ugari bildu ditu igandean ospatutako Merkatu Txikiak

Belauntza » Bertako nekazal produktuez gain, abereak, artisau lanak eta bigarren eskuko tresnak ere jarri zituzten salgai.



Abereak ikusmin handia sortu zuten; taberna atzeko zelaian jarri zituzten hauek denak ikusgai. HITZA

ERREDAKZIOA

Abereak, eskulanak, nekazal produktua, bigarren eskuko tresnak... ikusi eta erosi ahal izan ziren herenegun Belauntzan. Udalak eta Agenda 21ek antolatuta, Merkatu Txikia egin zuten.

10:30ean ireki ziren Merkatu Txikiko ateak. Belauntzako base-rritarrek, beraien baratzetako produkturik eta abererik onenak eraman zituzten igandean azokara. Nekazal ekoizle eta eskulangileek hartu zuten parte ekimenean, eta erakutsi, urtean zehar egindako lanak eman dituen emaitzak.

Guztira zazpi etxe eta baserrietako produktuak egon ziren salgai. Horietatik hirutan, nekazaritza arlokoak izan ziren. Nabarmenezkoa, antolatzaileen esanetan, Belauntzako Gazteek jarritakoa. Babarrunak, intxaurreak, piperrak, Etxeberri baserriko gazta eta beste hainbat produktu eraman zituzten. Hauek gain, pintxoak ere jarri zituzten salgai.

Ramon eta Miguel Lopetegi anaiek ere baratzeako produktu ugari eraman zituzten: errezil sagar handi eta txikiak, ezti, bi motatako intxaurreak, babarrunak, kiwi-ak, letxua, aza, gindillak, berenjena... Famili bereko Maite Arandia eta Maite Arregik irasaga-

rra eta bizkotxoak jarri zituzten salgai, eta joskintza lanak izan zituzten erakusgai.

Abereen kasuan bi belauntzarrek mota askotako abereak erakusgai jarri zituzten: Miguel Gabirondok ahuntz nanoak, ahuntzak, latxa arrazako ardiak, oilaskoak, zaldiak, ponny-a, astoa, oilaskoak...

Etxeberri baserrikoek behi eta zaldi ugari eraman zituzten Merkatuara, 3 eta 4 buru bakoitzetik, baita ardiak ere. Ikusmin handia sortu zuten abereek. Bestetik, Izaskungo Jose Luis Olariagak egurrez egindako eskulanak erakutsi zituen. Haurrek ponny-an ibiltzeko aukera ere izan zuten.

Orain, partaide eta herritarrei zer hobetu behar den galdetzeko asmoa dute antolatzaileek. Bestetik, herritar gehiagok postuak jartzeko neurriak hartuko dituzte.



Denera zazpi postu jarri zituzten herritarren artean. HITZA

Laburrak

Drogen inguruko hitzaldia Kultur Hamabostaldian

OREXA » Bihar ekingo diote Orexan Kultur Hamabostaldiari. Hasteko, *Drogak, gu eta gizartea* izenburupean, hitzaldia eskainiko du JM Izetak. Jardunaldia bihar 21:30ean izango da.

Ohiko Osoko Bilkura egingo du gaur Udalak

IBARRA » Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkura deitu du gaurko. 09:00etan hasiko den bilkuran, besteak beste gai zerrenda honako hauek osatuko dute: Ibarako Udaletxeko Etxebizitzaren irisgarritasunari buruzko araudiaren onarpena; Ibarako Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal araudiaren onarpena; Ibarako Udaletxeko Bake epaile titular eta ordezkaren izendatzea; Leaburu Parking-ean OTA zerbitzua (eremu orlegi bezala) zabaltzea; 2011 ariketarako Udal Tributua arautzen dituzten Ordenantza Fisikalen aldatzea...

Zergen ordainketak burutzeko azken egunak

IBARRA » Azaroaren 2an amaituko da 2010. urteko Ibilgailuen Sarre-rari dagokion Tasaren ordainagiriak kobratzeko epea. Egun hau igaro ondoren, bide exekutiboz kobratuko dira, %20ko gainkarguaz. Ordainagiri horiek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal dira. Bestalde, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren ordainketak egiteko borondatezko epea azaroaren 10ean amaituko da. Hauek Banku eta Aurrezki Kutxa laguntzaile izendatuetan egin beharko dira.



HILEKO TXOKOA

harpidedunen
TXOKOA hitza

①

SASKIBALOA

Urriaren 31an Illunben jokatu den **Lagun Aro GBC - Blancos de Rueda** Valladolid partidarako **sarrera pare bat**



②

DISKOAK

Gaztelupeko Hotsak disketxearen eskutik, Urko Menaiaren **"Ametsak eta Oroitzapenak"** eta Bide Ertzean taldearen **"Don inorrez"** disken **bina ale**



③

JAIALDIA

Azaroaren 5an ostirala iluntzeko 20:30ean **Tolosako Leidorren** ospatuko den **IX. Nazioarteko Tikitixa** Jaialdirako **bi sarrera pare**



④

ANTZERKIA

Datorren **azaroaren 6an** larunbata arratsaldeko 17:00etatik aurrera **Tolosako Topic-en** eskainiko den **Robot Maitea** antzezlanerako **bi sarrera pare**



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info**
[harpidedunen kidea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

E Emaitzak

PILOTA

ERREGIONAL OHOREZKO MAILA	
LAU T'ERDIKO TXAPELKETA	ZAZPIGARREN JARDUNALDIA
FINAL HAMASEIRENAK	Tolosa CF 0
Olaetxea 20	Pasajes 1
Patxi Ruiz 22	
	SAILKAPENA
Olazabal 3	1. Hernani (18 puntu); 2. Real Union (14 puntu); 3. Mondragon (13 puntu); 11. Tolosa (8 puntu).
Berasaluz VIII 22	
	ERREGIONAL PREFERENTEA
Ekaitz Saralegi 13	ZAZPIGARREN JARDUNALDIA
Abel Barriola 22	Tolosa CF 'B' 1
	Mutriku 2
GIPUZKOAKO TXAPELKETA	INTXURRE KKE 0
KADETEAK	Urnieta 1
Galarraga-Iruretagoiena (A-S) 20	
Intxurre 13	
	SAILKAPENA
Arregi-Aburuza (Aurrera Saiaz) 22	1. Zestoa (19 puntu); 2. Mutriku (14 puntu); 3. Antzuola (14 puntu); 7. Tolosa CF 'B' (10 puntu);
Lapke 8	16. Intxurre KKE (3 puntu).
	ARETO FUTBOLA
JUBENILAK, BANAKA	NAZIONAL A MAILA
Perez Albeniz (Aurrera Saiaz) 22	LAUGARREN JARDUNALDIA
Intxurre 13	Sasikoa 6
	Lauburu KE 4
SENIORRAK, BANAKA	SAILKAPENA
Arratibel (Aurrera Saiaz) 22	1. Zierbana (15 puntu); 2. Rompien- (15 puntu); 3. Atenea Ikusnet (13 puntu); 4. Lauburu (13 puntu).
Hondarrabia 4	
	NAZIONAL B MAILA
Perez (Aurrera Saiaz) 22	HIRUGARREN JARDUNALDIA
Eskoriatza 6	Donostia Zuzenbide 0
	Laskorain Ikastola 7
SENIORRAK, BINAKA	Irish Pub Shepherds-Egintza 4
Zabaleta-Zinkunegi (A. Saiaz) 22	Transportes Lakunza 5
Usurbil 2 16	
	SAILKAPENA
I. Urbietta-Labaka (A. Saiaz) 15	1. Concepto Createch (15 puntu);
Zestoa 22	2. Bilbo FS (15 puntu); 3. Laskorain Ikastola (12 puntu); 12. Transportes Lakunza (4 puntu); 16. Irish Pub Shepherds-Egintza (0 puntu).
	MENDI LASTERKETA
X. Urbietta-Biain (A. Saiaz) 16	MUNDUKO KOPA
Ilunpe 2 22	9- Nerea Amilibia 04:16"
Quina-Otaegi (A. Saiaz) 20	
Eibar 22	
Narbarte-Telletxea (A. Saiaz) 22	
Behar Zana 16	
Apeztekoa-Senperena (A-S) 22	
Hernani 9	
Sukia-Zubiri (Aurrera Saiaz) 15	
Ozkarbi 22	
FUTBOLA	

Laskorain Ikastolak gorantz begira jarraitzen du liderrari 0-7 irabazi ostean

ERREDAKZIOA

Aurreikuspenik baikorrenak txikituz uxatu zituen Laskorainek zalantza guztiak joan den igandean, Zuzenbide lider ahaltsuaren etxean izugarritzko erakustaldia eman eta gero.

0-7ko azken emaitza zabalak ulerkuntza ezberdinak izan ditzakeen arren, horitxoez benetako neurketa bat jokatu ostean ondo merezitako garaipen bat ekarri zutela etxera inork ezin uka dezake, eta meritua are eta handiagoa da ordura arteko norgehiagoka guztiak garaipen banarekin konponduak zituen arerio bizkaitar baten etxean lortzen bada.

Zonakako defentsa kontserbakor batekin ekin zion taldeak hasiera-hasieratik, baina etxekoek berehala erakutsi zuten beraien ahalmena eta Endika atezainak lan ikaragarria egin behar izan zuen hasierako minutuetan bere atea zulatatu barik mantentzeko. Parti-

duaren nondik norakoa garbi definiturik geratu zen ordurako, ligako erasorik onenatarikoa, ligako defentsarik eraginkorrenaren aurka neurtzen ari zen.

0-Oeko emaitzak luzaro iraun izanagatik Jonikok apurtuko zuen markagailuaren patxada area kanpoko jaurtiketa baten bidez. Gilek beranduago alde handitu eta 0-2ko emaitzarekin aldageratu ziren bi taldeak.

Bigarren erdian tolosarren nagusitasuna islatzen hasi eta defentsa sendoa eraso jokaldi adimentsuekin tartekatuz arerioaren ga-bezia iraraztu zuen eta horitxoez ordurako puntuak ondo loturik utzi zituzten.

Hondarreko minutuetan, atezain jokalaria aterazuten etxekoek eta Barriolak beste bi baloi lapurtu

ostean 0-7ko azken emaitza itxi zuten, beraizangenuelarik goizeko protagonista nagusia 4 gol egin baitzuten CR7 berberaren ateburua kalkatuz.

Saldias, Belloso eta Elolaren baxa garrantzitsuek garaipenaren balioa handitzen dute eta datorren astean GSI Bilbo boteretsuaren bisitari ekiteko konfiantza txerto garrantzitsu bat jaso du taldeak, norgehiagoka horrek erabakiko ditu neurri handi batean aurtengo Laskorain benetako aukerak.

Igandean autobusean pozarren itzuli ziren Garfield eta Amatriain jarraitzaileak, Javi delegatua, Javi entrenatzailea, Endika, Barriola, Telleria, Gil, Murgi, Joniko, Iosu, Ekhi, Ilunbe eta Aratz.

Bigarren eta hirugarren taldea
Laskorain Ikastolaren bigarren taldeari dagokionez, 2 eta 1 galdu zuten Anoetan eta hirugarren taldeak 3-3 berdindu zuten.



Asteburu honetan Bilbo talde indartsuaren aurka jokatu du Laskorainek. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Lau t'erdiko Txapelketaren final zortzirenetan bi leitzarren arteko lehia

Pilota » Ekaitz Saralegi, Mikel Olazabal eta Mikel Olaetxea etxerako bidea hartu dute asteburu honetan.

ERREDAKZIOA

Final hamaseirenak amaitu dira Lau t'erdiko Txapelketan. Eskualdeko sei pilotari egon dira bertan eta hauetatik bik bakarrik lortu dute aurreraregia: Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxea.

Zortea ordea, leitzarrek ez dute lagun izan eta final zortzirenetan elkarren aurka ariko dira lehian. Partida hau hilaren 31n, igande honetan, jokatuko da Iruñeko Labrit pilotalekuan. Garaileak Retegi II.aren aurka jokatuko du final laurdenetan.

Txapelketatik kanpo

Leitzan bizi den Asier Olaizolaren bide beretik joan dira gure pilotari gehienak asteburu honetan, hau da, Ekaitz Saralegi, Mikel Olazabal eta Mikel Olaetxea Txapelketatik at gelditu dira.

Azken honek, lizartzarrak, partida polita jokatu zuen Patxi Ruizen aurka larunbatean. Nafarrak huts asko egin zituen arren, Olaetxea garaipenetik bi tantora gelditu zen.

Mikel Olazabalen kasua erabat desberdina da. Aresoarrak ahazteko moduko partida jokatu zuen Berasaluze VIII.aren aurka Gernikan, larunbatean. Hiru tanto bakarrik lortu zituen Olazabalek. Bestalde, Berrizko pilotariak erakustaldia eskaini zuen mota guztietako tantoak eginez.

Azken partida atzo jokatu zuten

gure pilotariak. Bertan garaipenak eta porrotak bat egin zuten, bata leizarra eta bestea amezketarra baitzen. Ekaitz Saralegik partidako lehen zati dotorea jokatu zuen, nahiz eta belaunean min hartu zuen lehiaren hasieran. Hala eta guztiz ere, amezketarra 13-11 jarri zen aurretik. Ondoren Barriolak bere joko aurreratu zuen: sakean asmatzen hasi zen, pilota luze mugitzen eta tantoa bikain amaitzen. Azken emaitzak partidaren bigarren zatia ongi islatzen du: 13-22.

Final zortzirenetan bi leitzarren arteko partida ikusteko aukera egongo da. Nitro Txapelketaren finalean gazteena nagusitu baldin bazen ere, Abel Barriola ahalegingarria da sasoi bikainean dagoen Bengoetxea VI.a Txapelketatik at uzten.

Jon Rekondo leitzarrek Bizkaiko Irekia irabazi du Aitzol Atutxarekin

ERREDAKZIOA

Eubako pilotalekuan garaipen handia lortu zuen Jon Rekondok asteburuan. Aitzol Atutxarekin bikotea eginez, IV. Bizkaiko Irekia irabazi zuen leitzarrek. Ondorioz, iazko txapelkunak izan dira garaileak aurtengoan ere.

Jende ugari elkartu zen Euban. Aizkolariek 28 enbor moztu behar izan zituzten, binaka, eta leitzarrek eta dimatarrak sei probetatik lau irabazi zituzten.

Bigarren postuan Juanjo Lopez Azpilikueta eta Julen Mendieta gelditu ziren.



Jon Rekondok iazko garaipena berrizatu du asteburuan. HITZA

'Lan Onari 2010' saria Xabi Alonso futbol jokalaritari eman diote

Tolosa » Berarekin batera, Eusko Jaurlaritzak Imanol Arias, Leguineche, Ormazabal eta Laka saritu ditu.

«euren dedikazioan nabarmen-tzea lortu dutelako».


Sari banaketa ekitaldia atzo burutu zen eta Patxi Lopez lehendakaria arduratu zen ekitaldia zuzentzeaz.

Xabi Alonsoren kasuan, iragan ostiralean beste sari bat jasotzeko aukera izan zuen. Bertan izan ez bazen ere, Real Madrid taldearekin Ligako partida jokatu behar baitzuen hurrengo egunean, Asturiasko Printzearen Saria jaso zuen Espainiako futbol selekzioak Mundialean egindako lanagatik. Tolosarra Hegoafrikan egon zen eta aipatu selekzioarekin Munduko Futbol Txapelketa irabaztea lortu zuen, finalean Holanda garaitu ostean.

ERREDAKZIOA

Xabi Alonso tolosarrari, Real Madridrileko jokalaritari, *Lan Onari 2010* saria eman zioten atzo. Berarekin batera, Manu Leguineche kazetariak, Imanol Arias aktoreak, Javier Ormazabal enpresariak eta Maria Luisa Lakarekin euskaltzaleak jaso zuten saria.

Eusko Jaurlaritzak erabakitzen du *Lan Onari 2010* nori eman. Aurtengoan hauek izan dira sarituak,



Oinatz Bengoetxea eta Abel Barriolak elkarren arteko partida hilaren 31n jokatuko dute Iruñeko Labriten. HITZA

Hamaika
ikusteko, bizitzeko

bat etabari

ASTELEHENETIK OSTIRALERA 21:00-etan
Eguneroko albistei, magazina,

SINTONIZATU EUSKALDUNOKIN: LTD BIDEZ (eskatu antenariari), ELISKALTEL BIDEZ (11 edo 911), www.hamaika.tv





Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_publicidad@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegia: 687 410 034. alegia@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizalde@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai
Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leizta, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Udaltzaingoa jakinarazi du azaroaren 4ean eta 5ean ziklotorrak aztertzeko estazio mugikorra Tolosara etorriko dela, San Esteban auzoko ferialekura. Txanda hartzeko 943 62 63 00 zenbakira deitu daiteke.

■ **Tolosa.** Hilaren 19an Itziar-Zesto mendi ibilaldia eta ondoren berrun jatea antolatuta du Alpino Uzturre mendi elkarteak urtea amaitzeko. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5, 943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).

Erakusketa

■ **Tolosa.** Irudiak erakusketa GKO Galerian.

■ **Tolosa.** Hildakoak hilibietatik atez, duintasanak bereskuratzu erakusketa Kultur Etxean, Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik.

■ **Ibarra.** Alurr dantza taldeak antolatutako argazki erakusketa ikusgai da egun hauetan Benito Izagirre kultur etxean.

■ **Tolosa.** Ignacio Elizaranen erakusketa ikusgai Aranburu jauregian.

■ **Tolosa.** Indonesiako Txotxongi-ko erakusketa Topic-en.

■ **Tolosa.** Jon Balentziaga eta Enrique Zeberio pertsona gorrek egindako obren erakusketa izango da ikusgai Fronton kafetegian.

■ **Tolosa eta Alegia.** Lore lehorrekin egindako lanak ikusgai Tolosako Lanbroa tabernan eta Alegiako jubilatuen tabernan. Itziar artista irundarrak eginak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

■ **Leizta.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

120 perretxiko espezie bilduta

Leizta » Mikologialdia ospatu dute Leiztan, eta honen baitan, herenegun ikusgai jarri zituzten, inguruan bildutakoak.

ERREDAKZIOA

120 perretxiko espezie izendatu dituzte Hirugarren Mikologialdian. Leitzako Kultura Taldeak antolatuta, joan den astean zehar, inguruko mendietara irteerak egin zituzten, ondoak, zizak, txanpinoiak... biltzeko. Gero, larunbat arratsaldean, hainbat adituk, banatu, sailkatu eta izendatu egin zituzten. Azkenik, herenegun, Karrantzen, ikusgai jarri zituzten.

Leiztan, ondoak eta zizak biltzeko ohitura dagoela baieztatuta geratu da aurtengo Mikologialdian, baita, ingurua oparota dela ere. Izan ere, antolatzaileen esanetan, «oso gustura» geratu dira jendearen parte-hartzearekin, leiztar ugari hurbildu baitira mendira, espezie bateko edo beste perretxikoak aurkitzeko. Esaterako, Mendi elkarteak antolatuta, heldu eta haurrak Leiztalarrera joan ziren erakusketarako espezieen bila.

Ikusi ez ezik, jan ere egin zituzten perretxikoak. Onddo beltzeekin, udaberriko zizekin nahiz txanpinoiekin pintxoak prestatu baitzituzten Kultura Taldekoek herritarren artean banatu.

Mikologialdiaren baitan, marrazki lehiaketa ere egin zuten. Erleta eskolako ikasleek Mikologia-rekin lotutako margoak egin zituzten, eta erakusgai jarri zituzten igandean. Honez gain, zenbait herritarrek, argazkiak atera zituzten perretxikoei, eta orain, herriko 25 saltokitako erakusleihoetan ikusgai daude.



Aurtengo Mikologialdirako bildutako perretxiko espezie asko iaz aurkitu gabeak izan ziren. SARA GOMEZ



Haurrek ere parte hartu dute Mikologialdian; hauei zuzenduta, marrazki lehiaketa egin dute. SARA GOMEZ

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 beheko • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: